Bale. Honaino Eusko Jaurlaritzaren diskurtsoa. Jo dezagun datuetara.

"Pequeño" diotenean, ze punturainoko "de pequeño" esan gura dute? Ehuneko zenbat

* Concejal **Sr. Bravo Zubillaga (EH Bildu)**: Acabamos de hablar sobre los acuerdos PPNV en torno a los presupuestos. Nos hemos quejado en la forma en que lo hemos hecho, diciendo que vienen recortes desde Madrid.

Pues bueno, en este caso no venimos a hablar sobre los recortes que vienen desde Madrid, sino sobre los que vienen desde Vitoria-Gasteiz. Y una vez más, cómo no, venimos a hablar de la RGI. Es triste, pero es así. Aunque hemos dicho Vitoria-Gasteiz, en este caso no hablamos del alcalde que Noticias de Gipuzkoa definió como *tontolnabo.* No. Afortunadamente, movimientos como Gora Gasteiz y la generosidad de EH Bildu y otros partidos de izquierdas consiguieron echar a esa persona. Y no, desde luego, por el PNV, el PSE o aquello de "Hola soy Gorka Urtaran y esto es Jackass". Si fuera por ellos, todavía tendríamos como alcalde nuestra versión vasca del xenófobo y racista García Albiol. Menos mal que en Vitoria-Gasteiz hay un movimiento popular digno y gente que cree en el respeto a toda la ciudadanía, por encima de intereses personales y partidistas.

Como hemos dicho, hoy venimos a hablar sobre los recortes del Parlamento de Vitoria-Gasteiz, que afectan a la Renta de Garantía de Ingresos. Y antes de nada, toca expresar la versión del Gobierno Vasco, dado que son ellos quienes quieren imponer los recortes. Esta es su versión: "El fraude en la RGI es pequeño, pero no se puede permitir. Acabar con estos casos es crucial para la supervivencia del sistema y lograr que la sociedad lo perciba como una herramienta eficaz contra la pobreza. El Gobierno Vasco adoptará todo tipo de medidas".

Vale. Hasta ahí el discurso del Gobierno Vasco. Vayamos a los datos.

Cuando dicen "pequeño", ¿cuán "pequeño" quieren decir? ¿Qué porcentaje consideran "pequeño,

izango zen zuentzat "pequeño, pero crucial"?. Ba % 0,3ra ez da heltzen RGIan egiten den fraudea. Berriz ere diot: % 0,3ra ere ez da heltzen. Eta datu absolutuetara joaten bagara, oraindik bisualagoa egiten da datua: 135.000 errebisioetatik, 392 kasuetan egon da fraudea. Benetan da sinesgarria Eusko Jaurlaritzak ardura hau erakustea?"Todo tipo de medidas" hartu behar izatea hain residuala den fraude baten kontra egiteko?

Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, 10 milioi inguruko fraudea dago RGIan. Asko dela eman dezake, baina kontuan izan behar da laguntza honen funtzio soziala. Benetan beharrizan larrian dauden pertsonek hartzen dituzte laguntza hauek, eta sarri pobreziatik irteten laguntzen ez duen arren, euren bizitza duinagoa egitea lortzen da.

Baina hori dena berdin zaio PNVri, murrizketa honekin erakusten duten moduan. Eta berdin zaio baita ere PSEri, antza. Suposatzen dut hau PSOEn azken urteetan ikusten gabiltzan "deriva neoliberalaren" beste adibide bat dela. (Socialdemocracia europea 50-60 vs tercera vía Blair). Eta bueno, PSOE esan dudan arren, agian PE esan beharko nuke, S eta O horiek handi geratzen zaizkio eta. Gustatuko litzaidake, benetan, hori horrela ez izatea, S eta O horiek zentzua izatea, baina ez. Eta horrelako neurriak hartzen dituen gobernuetan egotea horren adibide ezin hobea da.

Eta datuetara berriro bueltatuta, 10 miloi horiek perspektiban ikustea komeni da. Eta hori konparaketa oso sinple batekin ikusten da. Alde batetik, komeni da 10 milioi horiek EAEn ematen den fraude fiskalarekin alderatzea. RGIaren inguruan erabaki diren neurriak ikusita, edonork esango luke 10 milioi horiek baino baxuagoa dela, ezta? RGIarekin horrelako fijazioa izateko. Ba ez, ez da baxuagoa fraude fiskala. Handiagoa da, eta ez apurtxo bat, eh! Fraude fiskala 2.000 milioi € ingurutan dago; hau da, RGIan ematen den iruzurra baino ia 200 aldiz handiagoa da.

Orduan, zergatik ez dira horrelako ahaleginak egiten kontu horrekin? Zergatik ez da hizpide gai hori komunikabideetan? Ba zergatik izango da ba. Betiko aporofobia hori berriro, betiko jende pobreekiko gorrotoa. Berriz ere klase baxuenekiko gorroto hori izateko gogoa. Gero esango da Klase borroka edo *lucha de clases* hori ez dela existitzen. Ba horrelako gauzek behin da berriro era-

pero crucial"? El fraude de la RGI no llega al 0,3 %. Repito: no llega ni al 0,3 %. Si empleamos datos absolutos, es aun más visual: de 135.000 revisiones, ha habido fraude en 392 casos. ¿Es realmente creíble que el Gobierno Vasco muestre esa preocupación? ¿Tener que tomar "todo tipo de medidas" para hacer frente a un fraude tan residual?

Según los datos del Gobierno Vasco, el fraude de la RGI asciende a unos 10 millones. Puede parecer mucho, pero se debe tener en cuenta la función social de esa ayuda. La reciben personas que tienen necesidades imperiosas, y aunque muchas veces no ayuda a salir de la pobreza, se consigue que su vida sea más digna.

Pero todo eso le da lo mismo al PNV, como demuestran con este recorte. Y parece que también le da lo mismo al PSE. Supongo que se trata de otro ejemplo de la *deriva neoliberal* del PSOE que venimos viendo estos últimos años. (Socialdemocracia europea 50-60 vs tercera vía de Blair). Y bueno, aunque he dicho PSOE, quizá debería decir PE, puesto que la S y la O le quedan grandes. Me gustaría de verdad que eso no fuera así, que la S y la O tuvieran sentido, pero no. Y estar en gobiernos que toman esas medidas es un claro ejemplo de ello.

Volviendo a los datos, conviene ver esos 10 millones en perspectiva. Y eso se ve con una comparación muy simple. Por un lado, conviene comparar esos 10 millones con el fraude fiscal que se da en la CAV. Vistas las medidas que se han decidido tomar en torno a la RGI, cualquiera diría que es menor que esos 10 millones, ¿no? Para tener esa fijación con la RGI. Pues no, el fraude fiscal no es menor. Es mayor, y no un poco, ¿eh? El fraude fiscal es de 2.000 millones de euros, aproximadamente; es decir, casi 200 veces mayor que el fraude de la RGI.

Siendo así, ¿por qué no se hacen esfuerzos así con ese asunto? ¿Por qué no es un tema de discusión en los medios de comunicación? Por qué va a ser. De nuevo la aporofobia de siempre, el odio de siempre a las personas pobres. De nuevo esas ganas de odiar a las clases más bajas. Después se dirá que la lucha de clases no existe. Ese

kusten didate existitzen dela, eta inoiz baino gogorragoa dela.

Amaitzeko, gogora ekarri gurako nuke egunotan sare sozialetan ikusitako tweet bat, uste dudalako oso ondo laburbiltzen duela egoera hau, non Enplegu eta Gizarte politiketako sailburuak zera esan ahal duen, inolako lotsa zantzu barik: 650 €kin bizi daitekeela, nahikoa dela EAEn 650 € kobratzea bizitza duin bat edukitzeko. Eta horrela dio tweet honek: *"Amak anaiari eta niri esaten zigun: "pobreak gara, baina ez miserableak". Batzuk 650 eurorekin pobreak dira eta beste batzuk, 87.000 eurorekin oso miserableak".*

Azken finean, hau da arazoa; gaur egun jende miserable larregi dagoela jende pobreei zuzendutako politikak erabakitzen.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Ikusten dugu PP oso arduratuta dagoela DSBEaren iruzurrarekin, ez hainbeste zerga-iruzurrarekin. Urtero 90.000 milioi euro kalkulatzen dira zerga-iruzurrean; horrek esan nahi du zerga-iruzurreko urte batekin DSBE laguntzen 180 urte ordain daitezkeela. Euskadin ere gauza bera gertatzen da; zerga-iruzurreko urte bakoitzak DSBEko 4 urte ordainduko lituzke.

Une honetan kontuan izan beharko genukeen iruzur bakarra aurrekontuak kaltetzen dituena da, ez DSBEtik datorren iruzur txikiago hori. Harrigarria da egunkari eta albistegietan inor ez agertzea bankuak erreskatatzean galdutako 60.000 milioi euroak aldarrikatuz. Diru horrekin DSBEaren 120 urte ordain litezke. DSBEa ezin daiteke limosnatzat jo, baizik eta biztanleria osoarentzako eskubide subjektibotzat, egoera ekonomiko zaila jasaten ari diren pertsonak integratzeko tresna gisa hartu behar da. Eta hori ez da guk asmatu dugun zerbait, hori hainbat herrialde europarretan gertatzen den zerbait da, eta Eusko Jaurlaritzak aldaketa honetarako eskatutako DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA HOBETZEKO DSBE-AREN OINARRIEN DOKUMENTUA (2017ko maiatza) txostenean bilduta dago, gainera.

tipo de cosas me demuestran una y otra vez que sí existe, y que es más dura que nunca.

Para terminar, quisiera recordar un tweet visto estos días en las redes sociales, porque creo que resume muy bien esta situación. En él, la consejera de Empleo y Políticas Sociales manifiesta lo siguiente, sin una pizca de vergüenza: que se puede vivir con 650 euros, que es suficiente cobrar 650 euros en la CAV para tener una vida digna. Esto es lo que dice el tweet al que me refería: *"Mi ama nos decía a mi hermano y a mí: "seremos pobres, pero no miserables". Hay quien con 650 € es pobre y quien con 87.000 € es muy miserable".*

Al fin y al cabo, este es el problema: que hoy en día hay mucha gente miserable decidiendo las políticas dirigidas a los pobres.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Vemos que al PP le preocupa mucho el fraude en la RGI, lo que no vemos es que le preocupe tanto el fraude fiscal. 90.000 millones de euros se estiman anualmente en fraude fiscal; estamos hablando que cada año de fraude fiscal podría pagar 180 años de prestaciones de RGI. Si lo trasladamos a Euskadi, sucede lo mismo; cada año de fraude fiscal estaría pagando cuatro años de RGI.

El verdadero fraude por el que verdaderamente tenemos que preocuparnos ahora mismo es el que está realmente haciendo daño a los presupuestos, no el que viene de la RGI que es muy inferior. Nos resulta curioso no ver portadas de periódicos o informativos, denunciando a los cuatro vientos los más de 60.000 millones de euros que se han perdido en los rescates a los bancos. Con esta cantidad se podría soportar las ayudas por RGI durante más de 120 años. No se puede concebir la RGI como una limosna, sino que debe de ser un derecho subjetivo para toda la ciudadanía, una herramienta de integración para las personas que se encuentran atravesando una situación económica difícil. Y esto no es algo que nos hayamos inventado nosotros y nosotras, esto es algo que ya está integrado en muchos países europeos, y que viene recogido en el DOCUMENTO DE BASES RGI PARA LA MEJORA DE LA RENTA DE GARANTÍA DE INGRESOS (Mayo 2017), que Gobierno Vasco solicitó para esta misma reforma.

Ondorioen artean irakur dezakegu:

- Gutxieneko errentetan gehien inbertitzen duten herrialdeak dira pobrezia-tasa baxuenak dituztenak.
- Diru-sarrerak bermatzeko sistemak egoteak ekonomiaren eta enpleguaren hazkundeari laguntzen dio eta ekonomiaren egonkortzaile automatiko gisa lan egiten du.
- Diru-sarrerak bermatzeko sistemek bizi-baldintzak eta jasotzen dituztenen gizarteratze mailak hobetzen dituzte.

Honen alde lan egin beharko genuke, ez karitatearen alde.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Bozkatu egingo dugu. Lehenengo ordezko testua bozkatuko dugu eta gero jatorrizkoa.

Ordezko mozioa, Eusko Alderdi Jeltzalea eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra aurkeztutakoa:

- Aldeko botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.

Jatorrizko mozioa, Euskal Herria Bildu Taldeak aurkeztutakoa:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Berriz bozkatu behar dugu.

Ordezko mozioa, Eusko Alderdi Jeltzalea eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra aurkeztutakoa:

- Aldeko botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.

Entre sus conclusiones podemos leer:

- Los países que más invierten en rentas mínimas son los que tienen menores tasas de pobreza.
- La existencia de sistemas sólidos de garantía de ingresos favorece el crecimiento económico y el empleo, y actúa como estabilizador automático de la economía.
- Los sistemas de garantía de ingresos mejoran las condiciones de vida y los niveles de inclusión social de las personas beneficiarias.

Apostemos por esto, no por la caridad.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Vamos a votar. En primer lugar, votaremos el texto alternativo, y después el original.

Moción alternativa presentada por los grupos Partido Nacionalista Vasco y Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra:

- Votos a favor: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.

Moción original presentada por el grupo Euskal Herria Bildu:

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Tenemos que votar otra vez.

Moción alternativa presentada por los grupos Partido Nacionalista Vasco y Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra:

- Votos a favor: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.

Jatorrizko mozioa, Euskal Herria Bildu Taldeak aurkeztutakoa:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin eta Alkate andreak kalitatezko botoa erabiliz, **ONARTU EGIN DU Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerrak** aurketuriko **ordezko mozioaren** testua.

Moción original presentada por el grupo Euskal Herria Bildu:

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, y haciendo la Alcaldesa uso del voto de calidad, **APRUEBA** el texto de la **Moción alternativa** presentada por el **Partido Nacionalista Vasco y el Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra**, anteriormente transcrita.

**HAMAR.- EUSKAL HERRIA BILDU TALDEAREN MOZIOA, BHHKPla (BIZKAIKO HONDAKINAK KUDEATZEKO PLAN INTEGRALA)-RI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA: 2017004719, 2017KO EKAINAREN 22KOA).**

Euskal Herria Bildu Udal Taldeko Bozeramaileak izenpeturiko mozioa, Bizkaiko Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralari buruzkoa. Sarrera Erregistroa: 2017004719, 2017ko ekainaren 22koa, eta honako hau dioena:

"*BHHKPla (BIZKAIKO HONDAKINAK KUDEATZEKO PLAN INTEGRALA) 2005. urtean sartu zen indarrean eta 2016ra arteko indarraldia izan du. Urte hauetan bi berrazterketa egon dira, 2009 eta 2012an, Hondakinen Kudeaketa Integralaren eszenarioak eguneratu eta egokitzeko, kudeaketa helburuak eta ereduak eta beharrezkoak ziren azpiegiturak eta inbertsioekin bat egiteko.*

*Oraindik ez da argitaratu 2012 eta 2016 arteko Hondakinen Kudeaketa Integralaren txostena. Horrek erakutsi behar du hiri hondakinen sorrera, bilketa, tratamendu eta helburuaren bilakaera. Nahiz eta oraindik argitaratu ez, kudeatzaileengandik jasotako datuek ez gaituzte uzten baikorrak izan lortutako emaitzekin azken lau urteetan.*

**DIEZ.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO EUSKAL HERRIA BILDU, RELATIVA AL PLAN INTEGRAL DE LA GESTIÓN DE RESIDUOS URBANOS DE BIZKAIA (PIGRUB). (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2017004719, DE 22 DE JUNIO DE 2017).**

Dada cuenta de la Moción presentada por el Grupo Municipal Euskal Herria Bildu, relativa al Plan Integral de la Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia, con Registro de Entrada nº 2017004719 de 22 de Junio de 2017, del tenor literal siguiente:

"*El Plan Integral de la Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia ( PIGRUB) entró en vigor en el año 2005 y ha estado vigente hasta el año 2016. En este período se han hecho dos revisiones en los años 2009 y 2012, a fin de adecuar y actualizar los escenarios de Gestión Integrada de Residuos (GIR) a los objetivos y modelos de gestión y a las infraestructuras e inversiones necesarias.*

*A falta de la publicación del informe de Gestión Integral de los residuos urbanos del período 2012-2016 que recoja la evolución de la generación, recogida, tratamiento y destino de los residuos urbanos, los datos recabados de los distintos entes gestores nos impiden ser optimistas en cuanto a los resultados obtenidos del análisis del desarrollo del plan en estos últimos cuatro años.*

*Europar Batasunak markatzen duen hiri hondakinen berziklapenaren helburua lortzetik (%50 2020rako; %65 2030rako) urrun gaude. Eta are urrunago materia organikoa separatuki biltzeko tasa; gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundiaren datuen arabera urria den %1,14a baino ez dugu lortu.*

*Horren atzean, beste faktoreen artetik, hondakinen kudeaketa estrategia okerra dago; horrek errauztea nagusitu du ingurumenarekin begirunetsuago diren beste alternatiba batzuen kalterako, konpostajea bezala.*

*Aurre egin nahi diogun konplexutasunari ezin zaio erantzun bakartia eman, eta aldi berean, ezin daitezke gizarte aldaketak sor eta susta.*

*Laburbilduz, Durangoko Udalak hurrengoa onartzen du:*

*1- BHHKPlaren **berrazterketa** berehala egin dezan, herritarren partaidetza, gardentasuna, eta oinarrizko datuekiko atzipenarekin.*

*2- III. BHHKPlaren diseinu eta inplementazioa **irekia, parte hartzailea eta gardena** izan dadila, eta prozesuan hartutako erabakiak lotesleak izan daitezela. Prozesuan nahi duten talde politikoak, sozialak eta sindikalak parte hartu ahal dezaten.*

*3- BFAren heziketa, informazio eta sentsibilizazio kanpainaren helburua hondakinen bilketa separatua izan dadila, batez ere materia organikoarena, osoa, konpostatzeko.*

*4- BFAak **Europak Hondakinen Kudeaketa Integralaren eremuan ezarritako helburuak** eta epeak lortzeko konpromezua har dezan. Eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak eta azpiegiturak zuzen ditzala.*

*Ildo horretan, 2015ean, Europako Batasunak ekonomia zirkularra bultzatzeko ekintza plan bat hasi zuen. Plan horretan, udal hondakinen birziklapen-tasa 2030ean %65ekoa izatea exijitzen du (egungo helburua 2020 baino lehenago %50 birziklatzea da). Horrez*

*Así, estamos lejos de cumplir con el objetivo del 50% de reciclaje de los residuos sólidos urbanos fijado por la UE para 2020 y del 65% para el 2030. Y más lejos aún lejos de cumplir con la tasa de recogida separada de la matera orgánica, que actualmente, según datos de la propia DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA se situa en un escaso 1,14 %.*

*Esto se debe, entre otros factores, a una estrategia equivocada en materia de gestión de residuos que ha primado la incineración en detrimento de otras alternativas más respetuosas con el medio ambiente, como el compostaje.*

*No se puede dar una respuesta en solitario a un problema tan complejo como la Gestión Integral de Residuos. Ni es posible impulsar cambios sociales en este sentido por separado.*

*Es por ello, que el pleno del Ayuntamiento de Durango acuerda lo siguiente:*

*1- Instar a la Diputación Foral de Bizkaia (DFB) para que la **evaluación** del IIº PIGRUB se realice inmediatamente de manera participativa y transparente con acceso a los datos básicos.*

*2- Solicitar a dicha institución (DFB) que el diseño e implementación del III PIGRUB sea **abierto, transparente, participativo** ,cuyas decisiones sean vinculantes, y en cuyo proceso puedan tomar parte los distintos grupos políticos, sociales y sindicales que así lo deseen.*

*3- Solicitar que la campaña de la DFB para la **educación, información y sensibilización** en Bizkaia incida de forma principal en la recogida separada de residuos urbanos, especialmente los orgánicos, sin distincion, para su posterior compostaje.*

*4- Proponer a la DFB asumir **el compromiso de alcanzar - en los tiempos estipulados por Europa** - los objetivos marcados por la Unión Europea en materia de Gestión Integral de Residuos y adquiera el compromiso de destinar los medios e infraestructuras necesarias para su consecución.*

*En esta línea, en el año 2015, la UE puso en marcha un plan de acción para impulsar la **economía circular,** exigiendo alcanzar una tasa de reciclaje de residuos municipales al 65% en el año 2030 (el objetivo vigente es el 50% antes de 2020). La propuesta de*

*gain, zuzentarau berriaren proposameneko puntu baten barneratu dute bio-hondakinak bilketako objektu izan behar direla."*

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* <u>**Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**</u>: Aipatu nahi dugu ez dela EH Bilduren mozio bat, baizik eta Zero Zabor Bizkaiak Durangoko Udalari bozkatzeko eskatu dion mozio bat. Labur esango ditut zeintzuk diren eskatzen diren puntuak:

1.- Bizkaiko hondakinak kudeatzeko plan integralaren berrazterketa berehala egin dezala, herritarren partaidetza, gardentasuna eta oinarrizko datuen atzipenarekin.

2.- Plan honen diseinua eta inplementazioa irekia, parte hartzailea eta gardena izatea, talde politikoak, sozialak eta sindikalak ere parte hartzeko aukera izatea.

3.- Bizkaiko Foru Aldundiaren heziketa, informazio eta sentsibilizazio kanpainaren helburua hondakinen bilketa separatua izan dadila -eta hemen gauza bat gehitzen da: "materia organiko osoa konpostatzeko"-.

4.- Bizkaiko Foru Adundiak Europako hondakinen kudeaketa integralaren eremuan ezarritako helburuak eta epeak lortzeko konpromisoa hartzea.

Lau puntu hauek dira plataformatik eskatzen direnak.

* <u>**Garate Mintegui jaunak (PP)**</u>:

1. Egiazki, Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala (PIGRUB) iraungi egin dela esan dezakegu, baina, BFAk plana beste talde politikoekin batera lantzeko konpromisoa hartu du. Hau da, datozen 4 urteetarako balioko duen III. PIGRUBa Bizkaiko Batzar Nagusietan ordezkatutako talde politiko guztiekin batera landuko da.

2. Horrela bada, nahi duten talde politiko, sozial eta sindikalek parte har dezakete, baina era-

*nueva directiva también recoge, entre otros puntos, que "los biorresiduos deben ser objeto de recogida".*

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejala <u>**Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**</u>: Queremos mencionar que no es una moción de EH Bildu, sino una moción que Zero Zabor Bizkaia solicita votar al Ayuntamiento de Durango. Voy a expresar rápidamente los puntos que se solicitan:

1.- Que se revise de inmediato el plan integral de gestión de residuos de Bizkaia, con la participación de la ciudadanía, con transparencia y con datos elementales.

2.- Que el diseño y la implementación del plan sean abiertos, participativos y transparentes, y que se permita la participación de grupos políticos, sociales y sindicales.

3.- Que el objetivo de la campaña educativa, informativa y de sensibilización de la Diputación Foral de Bizkaia sea la recogida selectiva; aquí se añade lo siguiente: "Para compostar toda la materia orgánica".

4.- Que la Diputación Foral de Bizkaia se comprometa a cumplir los objetivos y los plazos establecidos en la gestión integral de residuos europea.

Esos son los cuatro puntos que solicita la plataforma.

* Concejal <u>**Sr. Garate Mintegui (PP)**</u>:

1. Efectivamente, el actual Plan Integral de la Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia (PIGRUB) podemos decir que ha caducado, pero es justo señalar que la DFB ha adquirido el compromiso de abordar el siguiente plan con todos los grupos políticos. Es decir; el III. PIGRUB con proyección para los 4 años siguientes se va a trabajar con todos los grupos políticos con representación en las Juntas Generales de Bizkaia.

2. Como no puede ser de otra forma, en el proceso tomarán parte los distintos grupos políticos, sociales y sindicales que lo deseen,

bakiek ez dute zertan lotesleak izan.

3. 5. edukiontziari dagokionez, PPk urteak daramatza sentsibilizazio kanpainak gauzatzeko baliabideak areagotu eta ondoren edukiontzia ezar dadin eskatzen. Aipatu nahi genuke azken urtean aurrekontua 100.000 euroan gutxitu dela, lehen sentsibilizazio kanpainetarako erabiltzen ziren eta orain, gainerakoa, finantzaketarako erabiltzen da.

4. Une honetan, oraindik ez dugu eskatutako birziklapen maila lortu, baina egia da, 2030era bitartean, urteak ditugula lanean jarraitzeko. Hala ere, BFAk horretarako neurriak hartu beharko ditu horrela izan dadin eta herritarrei kargu hartzen aritu den ahaldun nagusiak jarrera aldatu beharko du.

5. Azken finean, Batzar Nagusietan ordezkatutako alderdi politikook BFAn parte hartu beharko dugu eta III. PIGRUPa osatzeko iruzkinak egin. Hura da lan horretarako erakundea, eta bertan lan egin behar dugu. Horrenbestez, kontrako botoa emango dugu.

* 1. Alkate Ordea **Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: EAJk nahiz PSEk orain irakurriko dudan ordezko testua proposatzen dugu:

pero las decisiones no tienen por qué ser vinculantes.

3. En lo referente al 5º contenedor, el PP lleva años reclamando que se incrementen los recursos para la realización de las correspondientes campañas de sensibilización y su posterior implantación. Señalar que en el último año el presupuesto correspondiente se ha reducido en 100.000 €, que antes se dedicaban a las campañas de sensibilización y ahora, el resto, se dedica a la financiación.

4. En estos momentos, es verdad que estamos por debajo del límite de reciclaje, pero también es verdad que todavía queda tempo, quedan años, para alcanzar los recomendados para el 2030. Pero no es menos cierto que la DFB tiene que tomar las medidas que considere oportunas para que así sea, en lugar de como ha hecho el Diputado General, que se ha limitado a reprender a los ciudadanos.

5. En definitiva, los partidos políticos con representación en las Juntas Generales debemos tomar la palabra de la DFB, y participar en la elaboración del III PIGRUP con las aportaciones que correspondan. Esa es la institución competente, y allí es donde tenemos que trabajar. Por eso vamos a votar en contra de su propuesta.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Presentamos texto alternativo, tanto el Partido Nacionalista Vasco como el Partido Socialista, que a continuación paso a leer:

"*De conformidad con la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, es competencia de los órganos forales de los Territorios Históricos la planificación del marco de gestión de los residuos sólidos urbanos, a través de los correspondientes planes forales, la coordinación en el ámbito de cada territorio histórico de las actuaciones municipales en orden a garantizar la prestación integral de los servicios en esta materia y el impulso de las infraestructuras supramunicipales de gestión de residuos.*

*En base a lo anterior la Diputación Foral de Bizkaia aprobó el II Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia 2015-2016 (II PIGRUB).*

*El objetivo de dicho plan era lograr que la futura gestión de los residuos urbanos (RU) proporcionara a la ciudadanía un servicio de calidad, con un coste más homogéneo y ajustado posible en todo el THB y con los máximos niveles de protección ambiental, que permitan el cumplimiento de la normativa vigente y de los principio desarrollos sostenibles.*

*Finalizado el plazo de vigencia procede la III Revisión Ordinaria del II PIGRUB 2005-2016, que consistirá en una actualización de los datos de generación y gestión que se han producido durante el periodo 2102-2016 y de los aspectos relativos a los cambios normativos y estratégicos que se han podido producir durante este periodo.*

*Mediante Norma Foral 7/2012, de 31 de octubre, se creó el Consejo para la Sostenibilidad del Territorio histórico de Bizkaia, órgano de relación, participación y coordinación de las políticas de sostenibilidad entre las Juntas Generales de Bizkaia y la Diputación Foral, adscrito funcional y orgánicamente al Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural, con la competencia de coordinación de las políticas de desarrollo sostenible y carácter deliberante, asesor y consultivo.*

*Por todo ello, el Ayuntamiento de Durango, reunido en pleno, insta a la Diputación Foral de Bizkaia a:*

*1.- Que la evaluación del II PIGRUB y, en su caso, la prórroga del mismo, se realice a través de los órganos forales del Territorio Histórico de Bizkaia, dando cuenta al Consejo para la Sostenibilidad del THB.*

*2.- Que la Diputación Foral de Bizkaia informe y sensibilice a la ciudadanía en la materia relativa a la recogida selectiva de residuos, al objeto de alcanzar o acercarse lo máximo posible a los objetivos marcados por la Unión Europea en materia de gestión integral de residuos*."

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: "Zero Zabor" manifestua jasoko dugu. Europan "Residuo Cero" edo "Zero Zabor" filosofiak aurrera egin ahala, Bizkaian hondakinen tratamenduak ez du aurrera egin; ardatza Zabalgarbi da, hau da, duela 25 urte diseinatutako lantegia eta Bizkaiko hondakinen tratamendua erabat mugatzen duena errauskailua. Gainera, 2016an birziklapen-tasak murriztu egin dira, beraz, egoerak okerrera egin du eta Europak ezarritako helburuak lortzea zailagoa da.

Datu horiei dagokienez, ondorioztatu dezakegu une honetan indarrean den banaketa partzialaren bidez jasotako hondakinen kudeaketak ez duela ongi funtzionatzen, nahiz eta Bizkaiko Foru Aldundiak une honetako plana luzatu nahi izan duen.

Indarrean den PIGRUBean, 2016an Bizkaian banatuta biltzen den materia organikoaren helburua % 4,5ean finkatzen da. Une honetan, Durangon zerbitzurik ere ez dugu. Egia esan, ez dugu zerbitzua, ezta hondakinak biltzeko zerbitzuaren kontraturik ere, eta ondorioz, zerbitzu eskasa dugu, astean bilketa gutxi, edukiontzi hautsiak, paperontzi gutxiegi, baldintza negargarrian dauden kamioiak, etab... Bero handia egin duen egunetan ezinezkoa zen edukiontzietatik gertu egotea. Egoera horrek egonezina eragiten die herritarrei eta gaikako banaketa hastera animatzen ditu.

* Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Acogemos el manifiesto de "Zero Zabor". Mientras la filosofía del "Residuo Cero" o "Zero Zabor" avanza en Europa, en Bizkaia el sistema de tratamiento de residuos está estancado; su columna vertebral es Zabalgarbi, una incineradora ideada hace 25 años que condiciona absolutamente el tratamiento de los residuos en Bizkaia. En 2016 las tasas de reciclaje están además, disminuyendo, con lo que se empeora la situación y se hace más difícil conseguir llegar a los objetivos marcados por Europa.

Ante estos datos, la conclusión evidente es que el sistema actual de gestión de residuos recogidos con separación parcial no funciona, pese a lo que la Diputación de Bizkaia ha decidido prorrogar el plan actual.

El actual PIGRUB marca un objetivo de recogida separada de materia orgánica en Bizkaia para 2016 de 4,5%. Actualmente en Durango ni siquiera contamos con este servicio. En realidad no contamos ni con el servicio, ni con el contrato de servicio de recogida de basuras, lo que nos deja un servicio insuficiente con pocas recogidas de basura semanales, con contenedores rotos y papeleras insuficientes, con camiones y barredoras en pésimas condiciones, etc... En estos días pasados de abundante calor se hacía imposible estar cerca de un contenedor por su peste. Estas situaciones generan un extenso malestar en la población, que en nada anima a la ciudadanía a realizar la separación selectiva.

Bestalde, beste udal eta elkarteetan, zerbitzua erabat garatua izatean gain, erabilera egokia bultzatzen dute.

Mientras, en otros ayuntamientos o mancomunidades, no solo tienen completamente desarrollado el servicio, sino que además fomentan su correcto uso.

* 4. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Nik ordezko mozioa irakurriko dut.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Voy a leer la moción alternativa.

MOZIOA IRAKURTZEN DU:

"*Otsailaren 27ko Euskadiko Ingurumena Babesteko 3/1998 Legearen arabera, Herrialde Historikoetako foru organoen ardurakoa da hiri hondakin solidoak kudeatzeko markoaren planifikazioa, foru plan ezberdinen bidez, herrialde historiko bakoitzean esparru honetan eman beharreko zerbitzuen prestazio integrala bermatzea xede udal mailan egin beharko diren jarduerak koordinatzea eta hondakinak kudatzeko udalez gaindiko azpiegiturak abian jartzea bultzatzea.*

*Esandakoan oinarrituta, Bizkaiko Foru Aldundiak "Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integralaren Proiektua 2005-2016" (II. BUHKPI ) izenburukoa onartu zuen.*

*Esandako planaren helburua zen hiri hondakinen kudeaketa kalitatezko zerbitzuaren bidez egitea, Bizkaiko Herrialde Historiko osoan koste homogeneo eta egokia jarrita eta ingurumena babesteko helburuak,indarrean dagoen araudia eta garapen jasangarrirako printzipioak betez.*

*Planaren indarraldia amaituta, 205-2016 epealdiko II BUHKPI-aren Ohiko Berrikusketari ekin behar zaio eta 2012-2016 epealdian sortu eta kudeatu diren hondakinak eguneratuko dira eta aldi honetan guztian eman araudietan eta estrategietan eman diren aldaketak aztertuko dira.*

*Urriaren 31ko 7/2012 Foru Arauaren bidez Bizkaiko Herrialde Historikoaren Iraunkortasunerako Kontseilua sortu zen, hau da, Bizkaiko Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harreman,parte hartze eta koordinaziorako organoa, Iraunkortasun eta Ingurune Naturala Sailaren barruan. Kontseilu honen eskumenak dira garapen iraunkorrerako politikak koordinatzea eta izaeraz da deliberatzaile, aholkulari eta kontsulta emailea.*

*Horregatik guztiagatik DUrangoko Udalak, osoko bilkuran batzartuta Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen dio:*

*1.- II. BUHKPI-aren ebaluazioa eta, bere kasuan, planaren luzapena, Bizkaiko Herrialde Historikoko foru organoen bidez egitea eta horren berri BHTko Iraunkortasunerako Kontseiluari ematea.*

*2.- Bizkaiko Foru Aldundiak hiritargoari hondakinen bilketa selektiboaren inguruko informazioa ematea eta helburu horrekin sentsibilizatzea, Europako Batasunak hondakinen kudeaketa integralerako ezarri dituen helburuak ahalik eta gehien hurbiltzeko.*"

* **Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**: Guk plataformak aurkezten duen mozioa babestuko dugu.

* Concejala **Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**: Nosotros vamos a apoyar la moción que ha presentado la plataforma.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Hondakinen kudeaketarako plan berria definitzeko oinarri batzuk aipatu nahi genituzke:

* Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Comentar algunas bases para definir el nuevo plan de gestión de residuos:

- Herritarren partaidetza demokratikoa eta gardentasuna ziurtatzea.

- Hondakinen errausketa arbuiatzea.

- Zero Zabor-i jarraiki, uste dugu gutxitzea dela pausorik egokiena; hondakinik onena, sortzen ez dena.

- % 65eko helburu europarra betetzea ahalbidetuko duen gaikako biltze-sistema ezartzea.

- Konposta indartzea.

- Olioen eta gaikako bilketaren kudeaketan eta informazioan integratzea.

- Itzulera-sistema ikertzea eta sakontzea.

- Denda eta saltokietan gaikako bilketa ezartzea.

- Gaikako bilketaren antolaketa hobetzea, auzo bakoitzean puntu berde bat sortuz.

- Hondakin-tasak berrikustea.

- Hezkuntza-kanpaina bat.

- Zerbitzu publikoa hobetzea.

* **Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**: Oso ondo dago Bizkaiko hondakinei buruz hitz egitea, baina guk uste dugu Durangoko bilketari buruz hitz egin behar dugula, benetako arazoa hemen daukagulako. Durangoko egoerari begiratuz, ikusi daiteke Durango dela eskualde mailan organikoak biltzeko zerbitzurik ez daukan herri bakarra; Iurretak badauka, Abadiñok, Garaik...

2016ko martxoko Osoko Bilkuran bigarren ezohiko luzapen bat egin genuen, kale-garbiketa eta hondakinen bilketaren ingurukoa. Denbora asko pasatu da eta berdin jarraitzen dugu, edo askoz txarrago; ikusi dugu azken hilabeteetan hainbat eta hainbat kamioi matxuratu direla; San Fauston organikoa batzeko kontenedore batzuk jarri dira, eta

- Que tenga transparencia y participación democrática de la ciudadanía.

- El rechazo a la incineración de residuos.

- En la línea de Basura Cero, entendemos que la minimización es el mejor paso; la mejor basura es la que no se produce.

- Establecimiento del sistema de recogida separado que permita cumplir con el objetivo europeo del 65%.

- Impulso del compostaje.

- Integrar en la información y gestión de los aceites y recogida separada.

- Estudio y profundización del sistema de retorno.

- Establecer la recogida separada en comercios y tiendas.

- Mejorar la organización de la recogida separada, creando un punto verde en cada barrio.

- Revisar las tasas de basura.

- Una campaña de educación.

- Mejorar el servicio público.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**: Está muy bien hablar de los residuos de Bizkaia, pero consideramos que debemos hablar sobre la recogida de Durango, que es donde tenemos el problema real. Si reparamos en la situación de Durango, veremos que es el único pueblo de la comarca que no tiene servicio de recogida de la materia orgánica. Iurreta sí lo tiene, Abadiño, Garai...

En el pleno de marzo de 2016 llevamos a cabo la segunda prórroga extraordinaria sobre la limpieza de las calles y la recogida de residuos. Ha pasado mucho tiempo y seguimos igual, o mucho peor. Hemos visto que en los últimos meses se han averiado varios camiones; se han colocado algunos contenedores para la materia orgánica en San Fausto, pero

bertako auzokideek ez dakite zertarako diren; kaleak garbitzen dituzten makinak ere arazo asko ematen hasi dira.

los vecinos del barrio no saben para qué son; las máquinas que limpian las calles también han empezado a dar muchos problemas.

2016ko aurrekontuetan EH Bildu abstenitu egin zen hainbat kontuengatik, eta bat izan zen hondakinen bilketarako eta kale garbiketarako beharrezkoa zen dirua bideratu eta zerbitzu duin bat ematea gure herritarrei.

EH Bildu se abstuvo por varias razones en los presupuestos de 2016, y una de ellas fue que se debía destinar dinero a la recogida de residuos y a la limpieza de las calles, y prestar un servicio digno a nuestra ciudadanía.

Niri Durangoko kaleetatik nabilenean lotsa eta pena ematen dit ikusteak zelan dauden gure kontenedoreak. Eskatzen duguna da behingoz Durangorentzat lan egitea eta kontratu bat egitea ahalik eta arinen. Europak ipintzen dituen mugetara heldu nahi badugu, beste edukiontzi batzuk eduki behar ditugu.

Cuando voy por las calles de Durango me da vergüenza y pena ver cómo están nuestros contenedores. Lo que pedimos es que se trabaje de una vez para Durango y se haga un contrato lo antes posible. Si queremos llegar a los límites que se han establecido en Europa, debemos tener más contenedores.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Bi mozio daude, beraz.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Hay dos mociones, por tanto.

Ordezko mozioa, Eusko Alderdi Jeltzalea eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra aurkeztutakoa:

Moción alternativa presentada por los grupos Partido Nacionalista Vasco y Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra:

- Aldeko botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.

- Votos a favor: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.

Jatorrizko mozioa, Euskal Herria Bildu Taldeak aurkeztutakoa:

Moción original presentada por el grupo Euskal Herria Bildu:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Berriz bozkatu behar dugu.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Tenemos que votar otra vez.

Ordezko mozioa, Eusko Alderdi Jeltzalea eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra aurkeztutakoa:

Moción alternativa presentada por los grupos Partido Nacionalista Vasco y Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra:

- Aldeko botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.

- Votos a favor: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.

Jatorrizko mozioa, Euskal Herria Bildu Taldeak aurkeztutakoa:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.

Moción original presentada por el grupo Euskal Herria Bildu:

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin eta Alkate andreak kalitatezko botoa erabiliz, **ONARTU EGIN DU Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerrak** aurketuriko **ordezko mozioaren** testua.

Por lo tanto,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, y haciendo la Alcaldesa uso del voto de calidad, **APRUEBA** el texto de la **Moción alternativa** presentada por el **Partido Nacionalista Vasco y el Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra**, anteriormente transcrita.

**HAMAIKA.- ESKAERAK ETA ITAUNAK.**

➢ **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Hondakinen bilketa eta garbiketaren hitzarmen berriaren inguruko informazioa jaso nahi genuke.

Abenduan eremuen berrikuspena onartu genuen, Aldundiari eskatu zitzaion. Zer edo zer jakin ote den ziurtatu nahi dugu.

➢ **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**:

- Jakin izan dugu komunikazio enpresa bat kontratatu dela 60.000 eurogatik. Jakin nahi dugu zeintzuk izan diren enpresa hori kontratatzeko erabili diren irizpideak. Gogoratu behar da kontratu negoziatu baten bidez egin dela kontratazioa eta jakin nahi dugu esleipena egiterakoan zeintzuk izan diren jarraitutako irizpideak; alegia, zein lan egin behar duten, norentzat egin behar duten.

**ONCE.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

➢ Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Querríamos información sobre el nuevo convenio del limpieza y recogida de residuos.

En diciembre aprobamos la revisión de la zonificación, se solicitó a Diputación. A ver si se sabe algo

➢ Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**:

- Hemos sabido que se ha contratado a una empresa de comunicación por 60.000 euros. Queremos saber qué criterios se han empleado para contratar a esa empresa. Hay que recordar que la contratación se ha realizado mediante un contrato negociado, y queremos saber qué criterios se han seguido para hacer la adjudicación; esto es, qué trabajo van a hacer, para quién lo van a hacer.

Guri inork ez digu esan momentu honetan komunikazio enpresa bat lanean dagoela udalean eta bere zerbitzuak erabili ahal ditugun ala ez. Jakin nahi dugu, baita, zergatik ez den Durango edo Durangaldeko enpresa bat ere prozedura horretara gonbidatu.

Eta azkenik, komunikazio enpresa hori bakarrik baldin bada gobernu taldearentzat, esan behar dugu nahiko garesti irteten zaizkigula alkate eta alkateordearen argazkiak.

- Bigarren galdera bat: onartuta dago osoko bilkura honetan Juan Itziarko auzunean bus geltoki bat kokatzea Mañaria-Durango-Bilbo linea bertan geratzeko, eta hori onartu zenetik ez denez urratsik eman jakin nahi dugu zer gertatzen den.

➢ Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Bigarren galderari buruzko datuak ez dauzkat hemen, eta, lehenengo galderari buruz, esango dut fotokopiatu egingo dugula kontratazio mahaian erabilitako dokumentazioa eta helaraziko dizuegula. Uste dut zuek ere ordezkari bat daukazuela kontratazio mailan, eta, beraz, horren berri izango zenutela.

A nosotros nadie nos ha dicho que ahora hay una empresa de comunicación en el Ayuntamiento y si podemos utilizar sus servicios o no. También queremos saber por qué no se ha invitado a ese procedimiento a ninguna empresa de Durango o del Duranguesado.

Para terminar, si esa empresa trabajará únicamente para el Equipo de Gobierno, debemos decir que nos salen bastante caras las fotos de la Alcaldesa y de los Tenientes de Alcalde.

- Otra pregunta: Este Pleno aprobó colocar una parada de autobús en Juan Itziarko auzunea, para que pare allí la línea Mañaria-Durango-Bilbao. Ya que no se ha dado ningún paso desde que se aprobó, queremos saber qué ocurre.

➢ Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: En cuanto a la segunda pregunta, no tengo los datos aquí. Y sobre la primera, fotocopiaremos la documentación que se empleó en la mesa de contratación y os la haremos llegar. Creo que vosotros también tenéis un representante en la mesa de contratación, así que ya estaréis informados.

Gai-zerrendan jasotako asuntoak amaitu ostean, eta 19:10ak direnean, alkate-presidenteak amaitutzat ematen du batzarra, eta akta jasotzeari ekiten zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 19:10 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.